



Esp. kodea: 2016SAPL0007

Gaia: PLENOA 2016/07/12  
Hasiera eguna: 2016/07/01

## **AKORDIOEN LABURPENA**

Udal Plenoak, 2016ko uztailaren 12a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

### **1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.**

Udal Plenoak, aho batez, 2016ko ekainaren 7an eta maiatzaren 31an egindako bilkuren aktak onartu ditu.

### **2.- ANPORRETA/ITURRITXIPIKO Gainako partzela (6-36) erosteko proposamena.**

Osoko bilkurako kideek aho batez erabaki dute Anporreta/Iturritxipiko Gainako partzela erostea 19.357,20 € prezioan.

### **3.- HAINBAT LAN BALDINTZA HOBETZEKO ALKATETZAK ETA ENPRESA KOMITEAREN ARTEAN HARTUTAKO AKORDIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA**

Osoko bilkurako kideek aho batez erabaki dute Alkatetza eta Enpresa Komitearen artean hartutako akordioa onartzea, udal langileen lan baldintzetan hainbat hobekuntza barne hartzen dituen.

### **4.- ZAS (ZURRUMURRUEN AURKAKO SAREA) SARERA ATXIKITZEA**

Osoko bilkurak aho batez erabaki du ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarea / Red Vasca antiRumores sareari atxikitzea, hurrengo helburuekin:

1. Zurrumurruen aurkako estrategian, praktika egokien jakintza eta azterketarako gunea izatea, diskriminazioaren eta xenofobiaren aurkako prebentzio eta lanarekin batera.
2. Elkarlanean edo koordinaturik lan esperientziak garatu, arreta berezia jarrita formakuntza prozesuen diseinuari, ezagutzarako dokumentazio eta materialen sorkuntzari, eta zurrumurruen aurkako ekintzen katalogo bat garatzeari, zein sareko kideen artean partekatu ahal izango den eta interesgarritzat jo dezaketen erakunde eta instituzioei eskainiko zaien.
3. Kanal bat sustatu, Euskadin sorturiko zurrumurruen aurkako esperientzien berri emateko eta haien gizarte eragina biderkatzeko.
4. Gizarte eta instituzio eragile berriak sarera gehitu eta haiekin esperientziak eta helburuak partekatu.

### **5.- “BIDE GARBIKETARI BURUZKO ORDENANTZAREN” BEHIN BEHINEKO ONARPENAREN ONDOREN AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN AZTERKETA, ETA BEHIN BETIKO ONARTZEKO PROPOSATZEA.**

Osoko Bilkurak, EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeen aldeko eta EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZI udal taldeen kontrako bozkekin erabaki du Bide Garbiketa Ordenantzaren alegazio epean izandako alegazioei erantzun eta Bide Garbiketa Ordenantzaren aurkeztutako testua behin betiko onartzea.



Esp. kodea: 2016SAPL0007

Gaia: PLENOA 2016/07/12  
Hasiera eguna: 2016/07/01

## **6.- A.E. 60.- FAGOR SAN ANDRES ESPARRUAREN HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN BEREZIAREN ALDAKETA PUNTUALA BEHIN BETIKOZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Osoko Bilkurak aho batez erabaki du, aurkeztutako bi alegazioak (LKS Ingeniería, S. Coop.ek eta EVEAC-CROWE HORWATH-SAYMA A. I. E eta BANCO POPULARek egindakoak) onartu eta Plan Bereziaren aldaketa puntuala behin betikoz onartzea.

## **7.- EUSKO JAURLARITZA ETA UDALAREN ARTEKO ELKARRERAGINGARRITASUN HITZARMENA SINATZEKO PROPOSAMENA**

Osoko bilkurako kideek aho batez onartu dute Eusko Jaurlaritzarekin elkarreagingarritasun hitzarmena sinatzea, zeinak suposatuko duen udala eta Eusko Jaurlaritzaren artean informazioa trukatzea, zenbait gairen inguruan, herritarrari hainbat dokumentuak eskatu beharrik ez izateko.

## **8.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK ONARTUTAKO UDALAREN 2015 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ZUZENKETAREN BERRI EMATEA.**

Osoko bilkurako kideek Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako 2015. Urteko aurrekontu likidazioaren zuzenketaren inguruan erabakitakoaren berri hartu dute.

## **9.- OHZREN KARGA TASA BERRIAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Osoko bilkurak, EAJ-PNV eta PSE-EEren aldeko botoekin, EH BILDU eta BALEIKE udal taldeko kontrako botoekin eta IRABAZI udal taldearen abstentzioarekin, onartu du, hasiera batean onartzea 2017ko zerga tasa hauek ondasun higiezinaren gaineko zergan:

- Ondasun higiezinak, industria edo hirugarren sektoreko lurzoruan daudenak, ehuneko 0,6.
- Gainerako ondasun higiezinaren, % 0,2315.

## **10.- 2016KO AURREKONTUAREN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA.**

Osoko bilkurak EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeen aldeko botoarekin, EH BILDU udal taldearen abstentzioarekin eta IRABAZI eta BALEIKE udal taldeen kontrako botoekin erabaki du, aurkeztu den kreditu aldaketa espedientea onartzea.

## **11.-. 2016/2017 IKASTURTERAKO KIROL IKASTAROETAKO TASEN ALDAKETA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA**

Osoko Bilkurak erabaki du EAJ-PNV, PSE-EE eta EH BILDUREN aldeko botoekin eta IRABAZI eta BALEIKE udal taldeen kontrako botoekin, 2016/2017 ikasturteetarako honako tasak aldatzea:

- **Egun Bateko Saioak:** Hileko prezioak oinarritzat hartuta, ateratzen den eguneko prezioari %20a gehituz ateratzen den prezioa. Ez abonatuak, horrez gain, kiroldegiko eguneko sarrera ordaindu beharko dute. Klase solteak erosteko aukera ematea da helburua.



Esp. kodea: 2016SAPL0007

Gaia: PLENOA 2016/07/12

Hasiera eguna: 2016/07/01

- **Master Class (Zumba eta Spining):** 5 € (Orain arte doan izan da eta soilik ikastaroetan parte hartzen zutenek eman zezaketen izena). Ez abonatuak, horrez gain, kiroldegiko eguneko sarrera ordaindu beharko dute
- **Izotz pista eguneko sarrera:**
  - Adin txikikoak: 1 €
  - Helduak: 2 €
- **Izotz pista publizitate biniloak:**
  - 2 metrokoa: 410 €
  - 1 metrokoa: 350 €

## **12.- HAINBAT LANPOSTUREN BALORAZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA**

Osoko Bilkurako kideek honako lanpostuen balorazioen berrikuspen proposamena onartu dute aho batez:

Auto garbiguneko ikuskatzailea , Kirol. Informazio/tramit. Agentea, Pizinetako sorosle, Administraria – kirolak, Administraria – Kontratazioa, Administraria – dirubilketa, Dirubilketako teknikaria, Landa teknikaria, Administraria – Aktak/estatistika

## **13.-IRABAZI UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, EMAKUMEEN ETA NESKATOEN TRAFIKOTIK LIBRE UDALERRI BATEN ALDEKOA**

Osoko bilkurak, EAJ-PNV, BALEIKE eta IRABAZI udal taldeen aldeko botoaz eta PSE-EE eta EH BILDU udal taldeen abstentzioaz Irabazi udal taldeak aurkeztutako mozioa onartu du.

Arrasaten, 2016ko uztailaren 12a

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta